



Proyde-Proegak logoa berritu du

Hogeita hiru urte igaro dira gure GGKE Proyde-Proega sortu zenetik. Bi hamarkada luze, non gauzak asko aldatu diren. Hala ere, logo korporatiboak lehengo berbera izaten jarraitzen zuen, orain arteko bakarra izan dena. Gure gizarte garaikidean gertatzen diren aldaketen abiadura ikusita, egunetik egunera gero eta argiago geratzen ari zen gure logoa ere berritu beharra zegoela, gaur egun Proyde-Proega dena zehatzago irudikatzeko. Eta horri ekin genion duela ia urtebete.

Ordutik, buru askok euren hausnarketa eta sormena eskaini dituzte, denak gure GGKEaren irudi egokia eskaintzera bideratuak. Esku asko izan dira sortzen ari ziren ideiarik onenak modu batera edo bestera islatzen. Eta begi askok aztertu dituzte emaitza progresiboak, proposamenak hobetzen zituzten ekarpenak iradokiz. Azkenean, hilabeteetako lan zirrargarriaren ondoren, logo berria behin betiko onartuta geratu zen. Hemen aurkezten dizuegu.



Eremu hauetan gomendatzen denaren arabera, proposamen berriak ez du erabat hausten aurreko logoarekin: Proyde-Proegaren balioak ahalik eta ondoen islatzen saiatzen da. Ildo honetan, koherentea da Proyde-Proegaren helburu eta historiarekin. Baina balio horiek gaur egungo pertsonentzat erakargarriagoa den moduan adierazten ditu, komunikabide garaikideen irizpideekin eta egiteko modu berrieekin bat etorritik.

Hiru osagaik osatzen dute logo berria, bere erara aurreko logoan ageri zirenak dira:

1. **Kolore korporatiboak**, orain ere marroien eremuan jarraitzen dute: horitik marroi iluneraino, okre eta marroi tonu desberdinetatik pasatuz. Lurrarekin lotzen gaituzten koloreak dira, errealistak izan gaitezen, gure planeta bere izaki guztiekin balioesteko eta defendatzeko dugun nahia adierazten dutenak, eta horien artean, bereziki, pertsonak nabarmentzen dira, Proegaren kezken eta jardueren funtsezko objektu baitira.



2. **Mundua**, kolore korporatiboetan islatutako marra zirkularrek iradokia. Esfera hori gure bokazio global eta inklusiboaren isla da. Proegan mundua da gure etxea, gure anai-arrebak, lurreko edozein bazterretako jendea, batez ere behar gehien duten pertsonak; gizatiar den orotik ez zaigu ezer arrotza gertatzen. Pertsona guztiei irekita gaude, euren genero, arraza, erlijio, hizkuntza eta gizarte-egoeratik haratago. Guztiek dute duintasun besteren-ezina eta eskubidea ekitatez eta zuzentasunez tratatuak izatekoa. Gizakiok familia handi bat osatzen dugula pentsatzen dugu Proegan, eta, bertan, elkarren arteko solidaritateak, daukaguna partekatuzera bultzatzen duenak, lagundu egin behar duela pertsona ahulenak setiatu ditzaketen zailtasunak arintzen.
3. **Salletar izarra**, La Salleko San Joan Bautistaren familiako kide nabari eta kontsekuente garenaren testigantza adierazgarria da, eta horrek gure kristau uste sendoak –signum fidei– aitortzen ditu, baita senidetasunaren aldeko gure apustua eta munduko pertsona guztiei formazio integrala eskaintzeko dugun konpromisoa ere.

Aurrerantzean, beraz, logo hau ikusten duzunean jakin ezazu Proyde-Proegarekin lotzen zaituen zerbaiten aurrean zaudela, hau da, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde konprometitu, arduratsu eta salletar batekin. Anima zaituz zure lankidetzara eskaintzera!